



EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIARENA, DISEINUKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZETAN 2025-2026 IKASTURTERAKO MATRIKULATZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUENA.

Goi-mailako arte-irakaskuntzak arautzen dituen eta arte-irakaskuntza profesionalen antolamendua eta baliokidetasunak ezartzen dituen ekainaren 7ko 1/2024 Legeak indargabetu egiten ditu Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54. artikulutik 58.era bitartekoak, goi-mailako arte-irakaskuntzei buruzkoak. Hala ere, legeak berak lehen xedapen iragankorrean ezartzen duenez, irakaskuntza horien antolamenduari buruzko erregelamendu-garapena egiten ez den bitartean, indargabetutako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako ikasketen antolamenduari dagokionez.

Beraz, arau-garapen berriaren zain, indarrean jarraitzen du urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duenak (gerora urtarrilaren 23ko 21/2015 Errege Dekretuak aldatu zuen).

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 11. artikulua xedatzen du Gobernuak zehaztuko duela Arte Irakaskuntzetako graduatu-titulua lortzeko ikasketa-planen oinarritzko edukia, dagozkion espezialitateetan.

Errege-dekretu horri jarraikiz, argitaratu zen maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Diseinuko Graduak goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautzen duena. Dekretu horren 7. artikuluan jasotzen denez, Hezkuntza-administrazioek, ikastetxeen proposamena ikusita, ikasketa-plana ezarriko dute, bertan ezarritako gutxienekoak osatuz.

633/2010 Errege Dekretuaren 7. artikulua arabera, argitaratu zen azaroaren 21eko 238/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan Diseinu Grafikoa eta Barne Diseinua espezialitateetan Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzen ezarpenari eta ikasketa-planari buruzkoa.

Halaber, 633/2010 Errege Dekretuaren 5. artikulua ikasketa horietara sartzeko baldintzak ezartzen ditu, eta adierazten du Hezkuntza-administrazioei dagokiela, beren eskumenen esparruan, ikasketa horietara sartzeko berariazko probaren deialdia, antolaketa, garapena eta ebaluazioa egitea.

Beste aldetik, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 84. artikulua ezartzen duenez, hezkuntza-administrazioek arautuko dute ikastetxe publikoetan ikasleriaren onarpena, hezkuntzarako eskubidea: sarbidea berdintasun-baldintzetan eta ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatuz, zehaztutako plangintzaren esparruan.

Emandako ahalmena betetzeko, argitaratu da Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendariaren 2025eko martxoaren 7ko Ebazpena, Diseinuko goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-probarako deialdia egiten dena, eta 2025 urteko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko argibideak ematen dena eta, 2025-2026 ikasturterako ikasleak onartzeko prozedura ezartzen dena.





Gainera, 1614/2009 Errege Dekretuak aurreikusten du, ikasleen mugikortasuna benetakoa izan dadin, hezkuntza-administrazioek kredituen aitorten-sistemari buruzko araudia argitaratu beharko dutela. Era berean, Goi-mailako Hezkuntzaren eremuan ikasketak aitortzeari buruzko azaroaren 14ko 1618/2011 Errege Dekretuak Goi-mailako Hezkuntza osatzen duten irakaskuntzen arteko ikasketen aintzatespen-erregimena arautzen du.

Aipatutako errege-dekretuan ezarritakoa betez, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2018ko azaroaren 22ko Ebazpena argitaratu zen, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko arte-irakaskuntzen ikasketetan kredituak aitortzea eta transferitzea.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita bosgarren xedapen gehigarriak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeari buruzkoak, xedatzen du, nolana ere, hezkuntza-administrazioek bultzatuko dutela emakumezko ikasleen presentzia areagotzea zientzien, teknologiaren, ingeniariaren, arteen eta matematikaren esparruko ikasketetan, bai eta emakumeek gutxien eskatzen dituzten lanbide-heziketako irakaskuntzetan ere. Era berean, ezartzen du hezkuntza-administrazioek gizonezko ikasleen presentzia sustatuko dutela emakumeen matrikula gizonena baino handiagoa den ikasketetan.

Ikasle ofizialaren izaera matrikula-prozeduraren mende dagoenez –hori da ikasle izatea lortzeko tresna formala–, matrikula-prozedura horren garapen praktikoa nolakoa izan behar den zehaztu behar da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Xedea eta aplikazio eremua

1. Ebazpen honen xedea da 2025-2026 ikasturterako matrikulazio-prozedura arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko ikastetxe publikoetan ematen diren Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetan.

2. Funts publikoekin finantzatzen ez diren baina irakaskuntza horiek ematen dituzten ikastetxe pribatuei ebazpen honen bigarren xedapen gehigarrian adierazitakoa aplikatuko zaie.

Bigarrena.- Diseinuko goi-mailako ikasketetara sartzeko baldintzak

1. Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko, beharrezkoa izango da Batxilergoko titulua izatea eta sarbide-proba bat gainditzea. Proba horretan, ikasketa horiek probetxuz egiteko heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak baloratuko dira.

2. Halaber, baldintza akademikoak bete ez arren, hemeretzi urtetik gorako izangaiak Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartu ahal izango dira, baldin eta proba bat gainditzen badute ikasleak batxilergoko helburuekiko heldutasuna duela eta dagozkion irakaskuntzak probetxuz egiteko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak dituela egiaztatzeko.

3. 2025eko martxoaren 7ko Ebazpenak, Ikaskuntza eta Berrikuntza zuzendariarenak, Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko berariazko probaren deialdia egiten duenak, eta 2025eko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko beharrezkoak diren jarraibideak ematen dituenak eta 2025-2026 ikasturterako onarpen-prozesua zehazten duenak, ikasketa horietara sartzeko baldintza akademiko baliokideak zerrendatzen ditu.



4. Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua dutenak zuzenean sartu ahal izango dira Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetara, berariazko sarbide-proba egin beharrik gabe.

Hirugarrena.- Onarpen-prozesua lehenengo mailan sartu berri diren ikasleentzat.

1. Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko berariazko probaren deialdia egiten duen eta 2025eko proba antolatu, garatu eta ebaluatzeko beharrezkoak diren jarraibideak ematen dituen eta 2025-2026 ikasturterako onarpen-prozesua zehazten duen Ikaskuntza eta Berrikuntza zuzendariaren 2025eko martxoaren 7ko Ebazpenaren seigarren artikulua xedatzen duen bezala, ikasle berriek, sartzeko berariazko proban izena ematearekin batera, egin nahi dituzten irakaskuntzei dagokien onarpen-eskabidea egin beharko dute, aipatu artikulua ezartzen duen moduan.

2. Eskainitako plazak onartzeko eta esleitzeko, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak bete beharko dira, eta aurreko paragrafoan aipatutako ebazpenaren hamalagarren artikuluan ezarritakoari lotuko zaio.

3. Ikasle berriak onartzeko prozesuak bi aldi ditu: ohiko aldi bat eta ezohiko aldi bat

IKASTETXEAN ONARPENA ESKATZEKO EPE-EGUTEGIA
OHIKO ALDIA
2025eko maiatzaren 1etik ekainaren 8ra, biak barne
EZOHIKO ALDIA
2025eko ekainaren 16tik uztailaren 7ra, biak barne (11:00ak arte)

a) Ohiko aldia amaituta, Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak ematen dituzten zentroetako batean plaza hutsak badaude irekiko da ezohiko onarpen-aldi hori.

b) Ezohiko aldian, kasuan kasuko irakaskuntzetan sartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten pertsonak aurkeztu ahal izango dute onarpen-eskaera, esleipen-prozesuan parte hartu arren plazarik esleitu ez zaien eta horretarako eratutako itxaron-zerrendan dauden pertsonak barne.

Laugarrena.- Onarpen-eskabideak eta eransteko nahitaezko dokumentazioa aurkeztea

1. Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira hezkuntza-eskumenak dituen sailak horretarako prestatutako ikasgunea interneteko atariaren bidez, kasu bakoitzean dagokion nahitaezko dokumentazioa erantsita. Atari horretara sartzeko, esteka hau erabili beharko da: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>, Nortasun Agiri Nazionala (aurrerantzean, NAN), Atzerriarraren Identifikazio Zenbakia (aurrerantzean, AIZ) edo Hezkuntzaren Identifikazio Agiria (aurrerantzean, HIA) aldeztu aurretik erregistratuta.

2. NAN edo AIZ ez duten atzerriarrek HIA eskatu beharko dute sartu nahi duten zentroan. Erregistroa egin ondoren, aipatutako atariaren bidez gauzatu ahal izango da eskaera.

Bosgarrena.- Onartutako eta onartu gabeko pertsonen behin-behineko eta behin betiko

zerrendak.

1. Onarpen-prozesuari dagozkion behin-behineko eta behin betiko zerrendak ikasgunea Interneteko atarian kontsultatu ahal izango dira, <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>.

2. Prozesu honetan, pertsona honelakoa izan daiteke:

Onartua: lehen esleipenean plaza lortu du eta matrikula daiteke.

Ez da onartu: baldintzak betetzen ditu, baina, puntuazioaren arabera, ez du plazarik lortu lehen esleipenean, eta bigarren esleipenean parte hartuko du.

Baztertuta: ez ditu baldintzak betetzen (akademikoak, agiriak, ordainketak, etab.) eta prozesutik kanpo geratzen da. Baztertze hori arrazoituta agertuko da.

3. Zerrenda horietan behin-behineko eta behin betiko onartuak eta ez onartuak agertuko dira, lehentasun-hurrenkeran, ezarritako onarpen- eta esleipen-irizpideen arabera, eta parte hartzen duten kupoa adierazita. Onartu ez diren izangaiek dagozkien itzarote-zerrendak osatuko dituzte. Era berean, baztertutako pertsonak ikasgunea atarian kontsultatu ahal izango dute beren eskaeraren egoera, baita dagozkion baztertze arrazoiak ere.

4. Aipatutako ikasgunea interneteko atarian sartzerik ez badago, sartu nahi den ikastetxeko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dira zerrendak, betiere jendaurreko ordutegiaren barruan.

5. Halaber, behin-behineko zerrenden aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango da ikasgunea Interneteko atariaren bidez, horretarako ezarritako moduan eta epeetan.

6. Behin-behineko eta behin betiko zerrendak argitaratzeko egutegia eta behin-behineko zerrendak erreklamatzeko epeak honako hauek izango dira:

ZERRENDAK ARGITARATZEKO EGUTEGIA ETA ERREKLAMAZIO-EPEAK	
EPE ARRUNTA	
Onartutako eta ez onartutako eskabideen behin-behineko zerrendak argitaratzea	2025eko ekainaren 10ean, 11:00etan
Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazio epea	2025ko ekainaren 11tik 12ra
Onartutako eta ez onartutako eskabideen behin-betiko zerrendak argitaratzea	2025eko ekainaren 12an, 11:00etan
EZOHIKO EPEA	
Onartutako eta ez onartutako eskabideen behin-behineko zerrendak argitaratzea	2025eko uztailaren 8, 11:00etan
Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazio epea	2025eko uztailaren 9tik 10era
Onartutako eta ez onartutako eskabideen behin-betiko zerrendak argitaratzea	2025eko uztailaren 10ean, 11:00etan

7. Behin betiko zerrenden aurka, errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ikastetxea kokatuta dagoen Hezkuntzako lurralde-ordezkariori, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik

aurrera zenbatzen hasita.

8. Hezkuntzako lurralde-ordez kariaren ebazpena ikasleen matrikulazioa bermatuko duen epean eman beharko da, eta ebazpen horrek administrazio-bideari amaiera emango dio.

Seigarrena.- Matrikulazio-prozesua.

Matrikulazio-prozesua desberdina da lehen mailan hasi berri diren ikasleentzat eta lehengo ikasleentzat (errepikatzaileak edo hurrengo mailara igarotakoak).

1. Lehenengo mailan sartu berri diren ikasleak.

a) Matrikulazio-prozesuak bi aldi ditu: ohiko aldi bat eta ezohiko aldi bat.

– Ohiko aldiak bakarrik matrikulatu ahal izango dira onarpen-prozesuan parte hartu duten eta baztertuak izan ez diren ikasleak. Bi fase ezarriko dira:

i) Lehen fasea: fase horretan lehenengo aukeran plaza lortu duten pertsonak baino ez dira matrikulatuko.

ii) Bigarren fasea: fase horretan plaza lortu duten pertsonak matrikulatuko dira, esleitutako plazaren aukera edo lehentasuna edozein izanda ere. Era berean, lehenengo fasean hutsik geratzen diren plazak esleituak dira. Fase horretan matrikulatu ahal izango dira sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak, hau da, onarpen-prozesuan baztertuak izan ez direnak, baldin eta lehen fasean plaza bat esleitu ez bazaie eta itxaron-zerrendan badaude.

Fase bakoitzaren hasieran matrikulatzeko eskubidea duten pertsonen zerrenda sortuko da. Matrikula egiteko epea amaitu eta ez badute eskubidea erabili, galdu egingo dute, eta ezohiko aldiak bakarrik matrikulatu ahal izango dira.

– Matrikulatzeko ezohiko aldia irekiko da, baldin eta, ohiko aldia amaituta, diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzetako espezialitatearen batean plaza hutsak badaude. Ezohiko aldi honetan parte hartu ahal izango dute sartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten pertsona guztiak.

b) Matrikula formalizatzeko epeak honako hauek izango dira:

MATRIKULAZIO-EGUTEGIA- LEHEN KURTSONO ETORRI BERRIAK		
Matrikulatzeko ohiko aldia	Lehen fasea	2025eko ekainaren 12tik 17ra, biak barne
	Bigarren fasea	2025eko ekainaren 19tik 20ra, biak barne
Matrikulatzeko ezohiko aldia	2025eko uztailaren 10etik 14ra, biak barne Plaza hutsen kasuan, 2025eko uztailaren 15etik 18ra	

2. Ikasle beteranoak.

a) 2024-2025 ikasturtean matrikulatutako ikasleen iraunkortasuna eta sustapena Diseinu Grafikoa eta Barnealdeko Diseinua espezialitateetako Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak ezartzeko eta ikasketa-plana onartzeko den azaroaren 21eko 238/2012 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari lotuta egongo da.

b) Mailaz igo diren edo errepikatu duten ikasleek –2024-2025 ikasturtean ikastetxean matrikulatuta egon diren ikasleak– 2025eko uztailaren 1etik 11ra bitartean, biak barne, egingo dute matrikula.

c) Aurretik ikastetxean matrikulatuta egon eta 2025-2026 ikasturtean ikasketei berriro ekin nahi dieten ikasleek uztailaren 1etik 15era bitartean, biak barne, aurkeztu beharko dute ikastetxeko idazkaritzan onarpen-eskaera, eta eskatzen den mailan plaza hutsak egoteko baldintzapean geratuko da onarpen hori. Ikasle horiek lehentasuna izango dute espediente-lekualdatzearen bidez onartzeko eskatzen dutenen aldera, eta iraileko lehen hamabostaldian formalizatuko dute matrikula, betiere ikastetxeak plaza libreak baditu.

Zazpigarrena.- Matrikula formalizatzea.

1. Deialdi berean izangai batek plaza bat baino gehiago lortzen baditu, matrikula bakarra egin ahal izango du.

2. Matrikula ikasgunea interneteko atarian egingo da, horretarako dagoen inprimakia betez. Matrikula egiten den ikastetxeko zuzendaritzak onarpen-eskabidean aurkeztutako kopiak alderatzeko eskatu ahal izango du, arrazoiak emanez. Horretarako, jatorrizko dokumentua edo informazioa aurkezteko eskatu ahal izango du.

3. Era berean, aurkeztutako eskabidean akatsen bat dagoela ikusiz gero, eskabidea zuzentzeko eskatuko zaio interesdunari, gehienez ere 10 eguneko epean, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

4. Onartutako pertsonak ebazpen honetan ezarritako epean matrikula ez badute gauzatzen, esleitutako plazari uko egiten diotela ulertuko da.

5. Ikastetxeek, nolanahi ere, onarpen-prozesuan parte hartzeko betebeharririk ez duten ikasleen matrikulazioa bermatu beharko dute, beharrezkotzat jotzen diren plaza-kopurua erreserbatuz.

6. Nolanahi ere, onartutako pertsonak dagokion prezio publikoa ordainduta formalizatuko da matrikula.

Zortzigarrena.- Espediente-lekualdaketa

1. Beste zentro batean egindako ikasketa partzialak dituzten ikasleek sartu nahi duten ikastetxeko idazkaritzan eskatu ahal izango dute lekualdaketa, 2025eko uztailaren 1etik 15era bitartean, biak barne.

2. Espedientea lekualdatzeko eskaerak onartu ahal izango dira, baldin eta, gainerako ikasleen matrikulazio-prozesua amaituta, ikastetxeak plaza libreak baditu eta izangaiek horretarako baldintzak betetzen baditu, indarrean dagoen araudiaren arabera.

3. Behin espediente-lekualdaketa onartuta, ikasleek iraileko lehen hamabostaldian gauzatuko dute matrikula, aurrez aurre, jendearen arretarako ordutegiaren barruan sartu nahi duten ikastetxeko idazkaritzan.

4. Ikasle horiek jatorrizko ikastetxean gainditutako ECTS kredituak aitortzeko eskubidea izango dute, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2018ko azaroaren 22ko Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz. Ebazpen horrek Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako arte-irakaskuntzetako ikasketetan kredituen aintzatespena eta transferentzia arautzen ditu.

Bederatzigarrena.- Dagokion prezio publikoak ordaintzea

Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetako unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen zerbitzuen prezio publikoak Hezkuntzako sailburuaren 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren testu bateginaren eranskinean daude finkatuta. Agindu horren bidez, hezkuntzaren arloan eskumena duen sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak eza1tzen dira, 2014ko ekainaren 3ko, 2015eko uztailaren 9ko, 2016ko maiatzaren 16ko eta 2018ko maiatzaren 16ko aginduek egindako aldaketekin.

Diseinuko goi-mailako ikasketen kasuan, 2025-2026 ikasturterako, ondoren zehazten diren matrikula-kontzeptuaren prezio publikoak ezaltzen dira:

Diseinuko goi-mailako ikasketak	
Espedientea irekitzea ikastetxeren batean ikasketak hasten direlako	9,36 €
Derrigorrezko zerbitzuak	5,64 €
Kurtso osoa (ECTS kreditu bakoitzaren prezioa)	10,94 €
Gainditu gabeko irakasgaiak (ECTS kreditu bakoitza)	12,34 €
Sarbide-proba	28,02 €

2. 2013ko uztailaren 10eko Aginduaren testu bateginaren 2.2 artikuluan xedatzen den bezala, prezio publiko horien zenbatekoa aldeztu aurretik ordaindu beharko da matrikulatzeko unean, ordainketa hori egiteko epea eta modua adieraziz.

Hala ere, goi-mailako arte-irakaskuntzak egiten dituzten ikasleentzat, aipatutako araudiak aukera ematen du matrikula-prezioak ordainketa bakar batean ordaintzeko, bai matrikula egitean, bai bi ordainketa berdinetan zatituta. Ordainketa horietatik lehena matrikula egitean egingo da, eta bigarrena, berriz, otsaileko lehen astean.

3. Dagokion prezio publikoa ezarritako epean eta moduan ordaintzen ez duenak galduko du hura onartzeak dakarren eskubide oro, eta legokiokkeen plaza hutsik utziko du.

4. Jarraian zehazten diren taldeek izango dute prezio publikoak ordaintzetik erabat salbuesteko edo hobaria aitortzeko eskubidea:

a) Familia ugariko ikasleak, baldin eta izaera hori aitortuta badute, Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legean zehaztutako baldintzetan:

i) Dagokion prezio publikotik salbuetsita geratuko dira kategoría bereziko familia ugariko ikasleak.

ii) Dagokion prezio publikoaren % 50eko hobaria izango dute kategoría orokorreko familia ugariko ikasleak.



Familia ugaria dela egiaztatzeko, Foru Aldundiak edo arlo horretan eskumena duen administrazioak emandako titulu ofiziala aurkeztu beharko da. Titulu horretan, familia ugaria dela adierazi beharko da, kategoria eta administrazio-auzotasuna edo errolatze-ziurtagiria adierazita.

Data horietan aitorpena izapidetzen ari bada, titulu ofiziala aitortzeko edo berritzeko eskaeraren kopia aurkeztuko da. Aitorpena lortu edo dagokion berrikuspena egin ondoren, horren kopia konpultsatua entregatu beharko da matrikulazioaren urte naturaleko abendua amaitu baino lehen.

b) Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 25. artikuluan jasotako kasuetan dauden ikasleak: horiek dagokien prezio publikotik salbuetsita egongo dira.

c) Batxilerreko ohorezko matrikularen kalifikazio orokorra duten ikasleak: dagokien prezio publikotik salbuetsita egongo dira. Salbuespen-eskubide hori goi-mailako ikasketetara lehen aldian sartzeko matrikularen ordainketan baino ez dute izango.

d) Irakaskuntzen ikasketa-plana osatzen duten irakasgaitan ohorezko matrikularen kalifikazioa duten ikasleak. Ikasle horiek matrikularen guztizko prezioan dagokion kenketa izango dute, aipatutako irakasgaien ECTS kreditu-kopuruaren arabera. Kenketa horiek ikasketa berberen hurrengo matrikulan aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleei, soilik, eta ez beste erkidego batzuetatik datozenei.

5. Matrikula egiteko orduan, urte horretako abendua amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira eskatutako salbuespena edo hobaria egiaztatzen duten agiri guztiak. Eskatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkezten ez bada, emandako onurak indargabetu egingo dira, eta salbuespena edo hobaria izan duten prezio publikoak osorik ordainduko dira.

6. ECTS kredituak aitortzeko eskaerari Hezkuntza Politiketako Sailburuordetzako Ikaskuntza eta Berrikuntzako Zuzendaritzak aldeko ebazpena ematen badio, kreditu horiengatik ordaindutako prezio publikoak itzuliko zaizkio interesdunari.

Hamargarrena.- Matrikulak ematen dituen eskubideak

1. Matrikularen prezioa ordaintzeak matrikulatutako irakasgai bakoitzean bi ebaluazio deialdi izateko eskubidea emango du, betiere urte beraren barruan.

2. Ezarritako prezio publikoaren ordainketa osoa edo partziala behin eginda, ikasleek ordaindutako kopurua jasotzeko eskubidea solik izango dute, baldin eta prezio hori ordaintzera derrigortutako pertsonari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jarduera egiterik ez dagoenean edo zerbitzua ematen ez denean.

Hamaikagarrena.- Matrikula baliogabetzea

1. Ikasketa horietarako aurreikusitako deialdiak eta egonaldi-urteak ez agortzeko, matrikula baliogabetzeko eskaera aurkeztu ahal izango zaio ikastetxeko idazkaritzan bertako zuzendariari, aurtengo abenduaren 31 baino lehen eta ebazpen honen II. eranskinean zehazten den eredu normalizatuaren arabera.

2. Urtarrilaren 1etik aurrera izapidetzen diren baliogabetze-eskaerak Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzara bidali beharko dira, aztertu eta ebatzi ditzaten.

3. Eskaera horren aldeko ebazpena emango da, honako inguruabar hauetakoren bat egiaztatzen bada:

- a) Ikaslearen gaixotasun luzea.
- b) Prestakuntzan normaltasunez aritzea eragozten duen lanpostu batean hastera.
- c) Prestakuntzan normaltasunez aritzea eragozten duten betebeharrak pertsonalak edo familiarak.
- d) Ikastetxeko Zuzendaritzak aurreikusitako aparteko beste inguruabar batzuk.

4. Ikasleek justifikatu gabeko bertaratze-hutsegiteak behin eta berriz eginez gero, ikastetxeko zuzendaritzak matrikula ofizioz baliogabetu ahal izango du, ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian ezarritakoaren arabera.

5. Matrikula baliogabetzeak hasierako matrikularen ondorio akademikoak galtzea ekarriko du, eta ez du, inola ere, ordaindutako prezio publikoak itzultzeko eskubiderik emango.

Hamabigarrena.- Datu pertsonalen babesa.

1. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko 2025-2026 ikasturterako matrikulazio-prozedura kudeatzen duten organoek eskabideen bitartez lortutako datu pertsonalak erabiliko dituzte aipatutako prozedura antolatzeke.

2. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta transferitzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dute Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

3. Halaber, eskatzaileek baimena ematen diote Hezkuntza Politiketako Sailburuordetzako Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta ditzan aurkeztutako dokumentuak.

Lehenengo xedapen gehigarria.- Ikasgunea interneteko atariaren bidez eskabideak aurkezteko laguntza.

1. Ikasgunea interneteko atariaren bidez izapideak betetzeko gorabeheraren bat edo zailtasunen bat duten pertsonak matrikula egin nahi duten ikastetxera joan ahal izango dira, jendeari arreta emateko ordutegiaren barruan, izapide horiek telematikoki behar bezala egiteko behar duten laguntza pertsonala edo materiala eman diezaieten.

Sistema telematikoaren ondoriozko arazoak edo zailtasunak izatearren egiten den edozein erreklamazio egin hala izateko, beharrezkoa da dagokion ikastetxeak egindako ziurtagiri bat aurkezte, aipatutako zailtasunak konpontzeko pertsona hori ikastetxean epearen barruan bertaratu zela egiaztatzen duena.

Gorabehera horiek saihesteko, izapide telematiko horiek epearen amaierara ez atzeratzea gomendatzen da.

Bigarren xedapen gehigarria.- Diseinuko goi-mailako ikasketak ematen dituzten baina funts publikoekin finantzatzen ez diren ikastetxe pribatuen betebeharrak.

Diseinuko goi-mailako ikasketak ematen dituzten baina funts publikok ez duten ikastetxe pribatuek eskainitako ikastaroei, plaza-kopuruari eta egindako matrikulei buruzko datuak sartuko dituzte, ezarritako moduan eta epean, Hezkuntza Sailak horretarako diseinatu duen aplikazio informatikoan. Datu horiek sartzeko epea 2025eko urriaren 15ean amaituko da.

Azken xedapenetatik lehenengoa.-Ondorioak.

Ebazpen honek Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratzen denetik aurrera izango dITU ondorioak. Web-orri horretan ikusgai egongo da, harik eta deitutako prozedura amaitu eta hura gauzatzearen ondoriozko errekurtsio-epeak igaro arte.

Azken xedapenetatik bigarrena.-Errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Politiketako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eugenio Jiménez Ibáñez
Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria



I. ERANSKINA - MATRIKULUA BALIOGABETZEKO ESKABIDEA

Izena eta abizenak:		NA/AIZ/HNA:
Helbidea:		Udalerria:
Postakodea:	Lurralde Historikoa:	
Telefonia:	Posta elektronikoa:	
Honako ikastetxe honetan matrikulatua:		

ADIERAZTEN DU:

_____ goi-mailako irakaskuntzen _____ mailan. matrikulatuta dagoela.

Eskabideak justifikatzeko arrazoiak honako hauek direla:

- ☐ Ikaslearen gaixotasun luzea
- ☐ Ikaslea lanean hastea, eta horrek ikasketetan ohiko moduan aritzea galaraztea.
- ☐ Betebehar pertsonal edo familiarak izatea, ikasketetan ohiko moduan aritzea galarazten dutenak
- ☐ Aparteko beste inguruabar batzuk: _____
- _____
- _____

Azaldutakoagati k, honako hau ESKATZEN DU:

Matrikula baliogabetzea. Horretarako honako agiri hauek aurkezten dira:

-
-
-
-

_____ a(e)n _____ (e)ko _____ aren _____ (e)an

Sinadura:

_____ (e)ko ZUZENDARIA